

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 5173

*EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 17koa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez berrikusi eta aldatzen baita Lajo y Rodríguez SAri (aurrerantzean, Derichebourg España, S.A.) emandako ingurumen-baimen integratua, Asparrenako udal-mugartean hondakinak balorizatzeko instalaziorako emana.*

#### EGITATEAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua eman zitzaion Lajo y Rodríguez SAri hondakinak balorizatzeko instalaziorako, Asparreneko udal-mugartean (Araba).

2.– Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez, aldatu eta eraginkor bihurtu zen Lajo y Rodríguez SAri hondakinak balorizatzeko instalaziorako emandako ingurumen-baimen integratua, Asparreneko udal-mugartean (Araba); halaber, 16-I-01-00000000364 baimen-zenbakia esleitu zitzaion baimen horri.

3.– 2015eko abuztuaren 14an, Lajo y Rodríguez SAK gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren aurka.

4.– 2015eko abenduaren 18an, ingurumen-organo honek txostenak eskatu zizkion, Lajo y Rodríguez SAri, ingurumen-baimen integratua Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan ezarritakora egokitzeari buruzkoak. 2016ko urtarrilaren 29an, Lajo y Rodríguez SAK gaiari buruzko txostena bidali zuen.

5.– 2015eko abenduaren 23an, Lajo y Rodríguez SAK bere baimenaren aldaketa ez-funtsezkoa eskatu zuen, ekoizitako hondakin berri gisa EHZ 20 01 01 kodea sartzean zetzana, eta organo honek aldaketa hori ez-funtsezkotzat berretsi zuen 2016ko urtarrilaren 12an.

6.– 2017ko ekainaren 22an, Lajo y Rodríguez SAK bere baimenaren aldaketa ez-funtsezkoa eskatu zuen, ekoizitako hondakin berri gisa EHZ 16 02 14 kodea sartzean zetzana, eta organo honek aldaketa hori ez-funtsezkotzat berretsi zuen 2017ko abenduaren 20an.

7.– 2017ko abuztuaren 31n, 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioaren berariazko ebazpena eskatu zuen Lajo y Rodríguez SAK.

8.– 2018ko ekainaren 15ean, Lajo y Rodríguez SAK bere baimenaren aldaketa ez-funtsezkoa eskatu zuen, ekoizitako hondakin berri gisa EHZ 17 01 07 eta EHZ 17 05 04 kodeak sartzean zetzana, eta EHZ 19 10 04 kodetik EHZ 19 12 04 kodera aldatzea, organo honek aldaketa hori ez-funtsezkotzat berretsi zuen 2018ko ekainaren 27an.

9.– 2019ko abuztuaren 23an, Lajo y Rodríguez SAK bere baimenaren aldaketa ez-funtsezkoa eskatu zuen, kableak tratatzeko ekipamendua aldatzean zetzana.

10.– 2020ko urriaren 8an, Lajo y Rodríguez SAK jakinarazi zuen aldatu egin zela ingurumen-baimen integratuaren titular den sozietatearen izena, eta aurrerantzean Derichebourg España SA izena izango zuela.

11.– Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2021eko urtarrilaren 13ko Ebazpenaren bidez, ez zen izapidetzeko onartu Derichebourg España SAK aurkeztutako aldi baterako etete-eskaera.

12.– Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2021eko urtarrilaren 21eko Ebazpenaren bidez, izapidetzeko onartu zen Derichebourg España SAK aurkeztutako aldi baterako etete-eskaera.

13.– 2021eko apirilaren 14an, Derichebourg España SAK bere baimenaren aldaketa ez-funtsezkoa eskatu zuen, EHZ kode berriak sartzean zetzana pila eta GEEHen kudeatzaile eta ekoizle gisa (urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretua aplikatuz, zeinaren bidez aldatzen baitira otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua, pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa, eta otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa). 2021eko apirilaren 22an, ingurumen-organo honek zuzenketa-errekerimendu bat eskatu zion Derichebourg España SARI.

14.– 2021eko apirilaren 26an, Derichebourg España SAK bere baimenaren aldaketa ez-funtsezkoa eskatu zuen, kudeatutako GEEHak hondakin berri gisa EHZ kode berriak sartzeko.

15.– 2021eko apirilaren 27an, Derichebourg España SAK bere baimenaren aldaketa ez-funtsezkoa eskatu zuen, atmosferarako emisioen fokuari alta ematean zetzana. 2021eko ekainaren 14an, ingurumen-organo honek 2021eko ekainaren 11ko Ebazpena bidali zuen, eskaera ez onartzekoa.

16.– 2021eko ekainaren 28an, ingurumen-organo honek Asparrenako Udalari eskatu zion, baimena berrikuste aldera, egoki irizitako ohar guztien nahikotasun-txostena bidaltzeko, instalazioaren inguruan dituzten eskumenen esparruan.

17.– 2021eko irailaren 10ean, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, honako hauek igortzeko eskatu zion Derichebourg España SARI: instalazioaren funtzionamenduaren eta ondo-rietan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko alderaketa bat eta instalazioari buruzko bestelako dokumentuak.

18.– 2021eko irailaren 24an, ingurumen-baimen integratua berrikusteko eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu zuen Derichebourg España SAK.

19.– Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela egiaztatu ondoren, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2021eko azaroaren 29ko Iragarkiaren bidez, Derichebourg España SAren ingurumen-baimen integratuaren berrikuspena 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea erabaki zen, egoki irizitako alegazioak aurkezteko, eta, horrenbestez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2021eko abenduaren 16an.

20.– Ingurumen-baimen integratua jendaurrean jartzeko izapideak amaituta, egiaztatu da ez dela alegaziorik aurkeztu.

21.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zion Asparreneko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari, 2022ko otsailaren 11n.

22.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zion Asparreneko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari, 2022ko otsailaren 14an.

23.– 2022ko martxoaren 14an eta 2022ko martxoaren 25ean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Asparreneko Udalak txostenak bidali zituzten, eta espedientean dago jasota emaitza.

24.– 2022ko abuztuaren 4an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, Derichebourg España SAren esku utzi zen espedientea.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

2.– Aipatutako testu bateginaren 26. artikuluan daude ezarrita baimena berrikusteko baldintzak. Horri jarraituz, lau urteko epean, instalazioaren jarduera nagusiari dagozkion teknika erabilgarri onenen (TEO) inguruko ondorioak argitaratzen direnetik aurrera, organo eskudunak ziurtatuko du instalazioaren baimenaren baldintza guztiak berrikusi direla eta, beharrezkoa izanez gero, egokitu direla, eta instalazioak aipatutako TEO erreferentzia-agirien ondorio aplikagarriak betetzen dituela.

3.– 2018ko abuztuaren 17an, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko 2018/1147 Betearazpen Erabakia (EB), hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen dituena, bat etorriaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren industria-isuriei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauarekin.

4.– 2020ko urtarrilaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 4/2020 Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, zeinaren bidez indargabetzen baita irailaren 25eko 183/2012 Dekretua, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena.

5.– Ingurumen-baimen integratua eman ondoren, ingurumenari buruzko araudi berria promulgatu da; beraz, egokia da indarrean dagoen araudi berrira egokitzea, ofizioz, Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren baldintzak, ebazpen horren laugarren apartatuan ezarritakoari eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

6.– Adierazi behar da ebazpen honek kontuan izan dituela teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak, bai instalazioak gehienez isur edo igor ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak zehazteko, bai ingurumen osoa ahalik eta gehien babesteko helburuz, instalazioaren ustiapenari ezarriko zaizkion bestelako baldintzak erabakitzeko. Zehazki, Europako Batzordearen BREF dokumentu honen edukiak hartu dira kontuan: Hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak («Best available techniques conclusions for waste treatment»), 2018ko abuztukoak.

7.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 72. artikuluan, izapideen kontzentrazioari buruzkoan, xedatutakoa aplikatuko da: «Administrazioa sinplifikatzeko printzipioari jarraikiz, egintza bakar batean erabakiko dira izaeragatik batera bultza daitezkeen eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak».

8.– Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak du ebazpen hau emateko eskumena, bat etorriaz Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan aurreikusitakoarekin.

9.– Aipatutako legeria, eta, oro har zein berariaz, gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Berrikustea Lajo y Rodríguez SAri hondakinak balorizatzeko instalaziorako emandako ingurumen-baimen integratua, Asparrenako (Araba) udal-mugaratean, 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez emandakoa, Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko 2018/1147 (EB) Betearazpen Erabakian azaltzen den baldintzetan.

Bigarrena.– Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren ondorioetarako, honako aldaketa hauek ez-funtsezkotzat hartzea: GEEHen EHZ kodeak sartzeko eskaera, kableak tratatzeko ekipamendua aldatzea, eta Lajo y Rodríguez SAk (aurrerantzean, Derichebourg España SA) sustatutako instalazioetan Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretura egokitzearen ondoriozko kodeak. Euskadiko Ingurumen Admi-

nistrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozedurari aplikatu beharreko araubide juridikoaz adierazitakoari dagokionez, eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean adierazitakoari dagokionez, ez zaie ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik egin behar aldaketoi.

Hirugarrena.– Aldatzea Derichebourg España SAri hondakinak balorizatzeko instalaziorako ingurumen-baimen integratua, 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez emandakoa, eta, zentzu horretan, ebazpen horren lehenengo, bigarren eta laugarren apartatuak ere aldatzea. Honela geratuko dira idatzita:

«Lehenengoa.– Derichebourg España SAri (Duero kalea 17, Mejorada del Campo (Madril); IFK: A 28131084) ingurumen-baimen integratua ematea, hondakinak balorizatzeko instalazio bat jartzeko, Asparrenako udal-mugarrean, ebazpen honen bigarren apartatuan zehaztutako baldintzetan.

Jarduera jasota dago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 1. eranskineko 5.4.d) kategoria honetan:

«5.4. Hondakin arriskugabeak balorizatzeko edo balorizatu eta deuseztatzeko instalazioak eguneko 75 tonatik gorako ahalmenarekin, baldin eta ondoren zerrendatuko diren jardueretako bat edo gehiago biltzen badituzte, hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikagarri zaizkion arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Lege Dekretuan bildutakoak izan ezik:

d) Tratamendua hondakin metalikoen birringailuetan, hondakin elektrikoak eta elektronikoak, eta bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak eta horien osagaiak barne».

Instalazioa Asparrenako industrialdean dago kokatuta, eta, guztira, 55.701 m<sup>2</sup> ditu. Horietatik 5.893 m<sup>2</sup> estaliak dira, eta azalera horretan daude kableak tratatzeko instalazioa eta bulegoak, metalen pabiloia, tailerra eta aldagelak, eta pabiloi irekia.

Jarduera da, batik bat, hondakin metalikoak edo mota guztietako txatarra erostea, sailkatzea, behin-behinean gordetzea, prestatzea –hala badagokio– eta garraiatzea (R1203/R0403 kudeaketa-eragiketa). Erosketaren barnean sartuko dira, kasu batzuetan, bitarteko propioak erabiliz egindako bilketa- eta garraio-eragiketak, baita enpresatik kanpoko baliabideak erabiliz egindako bidalketak, garraioa eta entregatzeak ere.

Tratamendu-lerroak honako hauek dira:

Tratamendu mekanikoa (Kudeaketa-eragiketa: R1203/R0403).

– Txatar ferrikoak: karbono-altzairuzko gailuak dira (profil ijeztuak, hodiak, xaflak, ebakinak, makinen elementuak eta abar) ekoizpen-prozesuetatik, desegite eta eraispenetatik, gaikako bilketetatik eta abar datozenak, baita erabiltzen ez diren ibilgailu deskontaminatuak ere. Materiala prestatzen da haren garbitasuna eta dentsitatea handitzeko, material ez-metalezkoak eta bestelako metalak kenduta.

– Txatar ez-ferrikoak edo metalak (altzairu herdoilgaitzak, aleatuak, kobreak, aluminioak, brontzeak... barne hartuta): instalazioaren pabiloietan gordetzen dira, estaldura azpian (kobreak, letoiak, bateriak, brontzeak) edo aire zabalean (aluminiozko profilak, kable elektrikoak).

Materialak sailkatu eta batzuetan behin-behinean gordetzen dira; beste kasu batzuetan, berriz, instalazioan bertan prestatzen dira, materialak bereiziz eta produktuen dentsitatea handituz (aluminiozko profilak, kobrezko erradiadoreak, kable elektrikoak).

– Kobrea eta aluminioa tratatzeko instalazioa: hiru etapatan birrindu eta material osagaiak bereizten dira.

Hondakin arriskutsuen biltegitratzea (kudeaketa-eragiketa: R1301/ D1501).

– GEEHak, kableak eta bateriak: estaldura azpian gordetzen dira, instalazioaren pabiloietan. Ez da tratamendurik edo transformaziorik egiten. Instalazioak hainbat makina eta instalazio osagarri ditu. Biltegitatu behar den kableak berunezko azala izan beharko du, eta aurretik saiakera bat egin beharko da berarekin, proba industrial bat eginda instalazioetan.

GEEHen biltegitratzea eta deskontaminatzea.

110/2015 Errege Dekretuaren XVI. eranskinean adierazitakoaren arabera, mota hautako tratamendu-eragiketak egiten dira:

– R1201. GEEHak sailkatu, bereizi edo taldekatzea.

– R1202. GEEHak desmuntatzea.

– R1203. GEEHen osagaiak bereiztea, barne hartuta substantzia arriskutsuak kentzea eta fluidoak, likidoak, olioak eta nahasteak ateratzea XIII. eranskinaren arabera.

– R1301. Hondakinak bilketaren eremuan biltegitratzea, transferentzia-instalazioak barne.

– R1302. Hondakinak modu seguruan biltegitratzea tratatu aurretik.

GEEHen deskontaminatze-lerroa urteko 1.010 tonakoa da, G1 eragiketa (tratamendu orokorreko eragiketa) soilik egingo da, eta hauek zehazki:

– 0. fasea. Gailuak jasotzea eta aldeztu aurretik desmuntatzea.

– 1. fasea. Osagaiak, substantziak eta nahasketak erauztea.

– 2. fasea. Gainerako frakzioak bereiztea.

Ez dira tratatuko kutsatuta dauden edo substantzia arriskutsuen osagaiak edo hondarrik dituzten GEEHak (infekziosoak, erradioaktiboak edo amiantodunak).

GEEHak transferentzia-zentroak 30 tonako gehieneko biltegitratze-eremua du.

– Kable elektrikoak eta telekomunikazioetakoak tratatzea: EHZ 17 04 10\* kodean bildutako kableak tratatzea; hidrokarburoak, harri-alkatena eta beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten kableak (kudeaketa-eragiketa: R1203/R0403). Berunezko azala eta oliotan bustitako paper bidezko isolamendua duten kable elektrikoak dira. Kudeaketa-ahalmena: 1.000 tona/urte. Tratatu aurretik biltegitratu daitezkeen kopurua, gehienez: 150 tona/urte.

Isolatutako kobrezko kableak pabiloien kanpoaldean biltegitratzen dira, kableak tratatzeko instalazioan prozesatzeko gero.

Lehenik, aurretratamendu bat egiten da, zatiak ebakiz eta eskuz deseginez.

Bi birrintze-etapatan askatzen dira osagaiak (metal eroalea eta plastiko babeslea), eta materialaren dentsitatea handitzen da; gero, hori mahai dentsitometriko batera igarotzen da, non kableak osatzen dituzten material ezberdinak bereizten baitira bibrazioaren eta aire bidezko fluidizatzearen ondorio konbinatuaren bitartez, eta horrek horien azelerazioa sortzen du kontrako noranzkotan.

Kobre garbia, plastiko garbia eta berriro bideratzen den zati misto bat lortzen dira. Azkenik, plastiko isolatzailearen zatia bigarren mahai bibrakor batzuetatik igarotzen da, zeinek egon daitezkeen hondarrik metalikoak bereizten baitituzte, eta plastiko garbia behin-behineko biltegitratze-silo batera igortzen, bidalketa egin aurretik. Zati metalikoa poltsa handietan biltegitratzen da, galdategira bidali aurretik.

Materiala ekipamendu batzuetatik beste batzuetara mugitzea garraio pneumatikoaren bitartez egiten da, mahuka iragazkiak erabiliz hori funtzionatzen jartzeko airea tratatzeko.

Derichebourg España SAK, hondakinak balorizatzeko jarduerarako, 2.177.189 kWh energia elektriko kontsumitzen du.

Prozesuetan sortutako hondakin-urak Asparrenako HUAN tratatzen dira.

Sortutako hondakin arriskutsuak zein arriskugabeak ekipamenduak mantentzeko eta instalazioa zaintzeko jarduera orokorretatik datoz, nagusiki.

Derichebourg España SAREN jardueran, BREFean hondakin-kudeatzaileen industriarako jasotako teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira («Reference Document on Best Available Techniques in the Waste Treatments», 2018ko abuztua): MTD1, MTD2, MTD3, MTD4, MTD5, MTD6, MTD7, MTD8, MTD11, MTD14, MTD17, MTD18, MTD19, MTD20, MTD21, MTD23, MTD24, MTD25, MTD26, MTD27, MTD28».

«Bigarrena.– Honako baldintza eta betekizun hauek ezartzea Derichebourg España SAK sustatzen duen hondakinak balorizatzeko instalazioa ustiatzeko, Asparrenako udal-mugaratean (Araba):

A) Gutxienez seiehun mila euroko (600.000) erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da, honako hauek estaliko dituena: hirugarren pertsoneri edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz aldatzen den ingurumena konpondu eta leheneratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen arabera (KPI) handituz.

B) Berrogeita zazpi mila berrehun eta berrogei (47.240) euroko fidantza jartzea, Ekonomia zirkularerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 23. artikuluko 5.b) apartatuan xedatutakoari jarraikiz. Fidantza horren zenbatekoa hondakinak tratatu eta biltegitzeko gehieneko gaitasunen arabera zehazten da.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahalko da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera igota.

Jarritako fidantza ez da itzuliko, harik eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak Derichebourg España SAK sustatutako hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera uztea baimentzen duen arte edo aipatu enpresak jarduera uzteko finkatutako baldintzak betetzen dituen arte; baldintza horiek, betiere, barne hartu beharko dituzte lurzoruaren kalitatearen gaineko adierazpean ezartzen diren betekizunak.

C) Derichebourg España SAK administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunari buruz emandako datuen aldaketa ororen berri emango dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari.

D) Babes- eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala beteko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta honako apartatu hauetan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Hondakinak onartu, hartu, maneiatu eta biltegitzeko baldintzak eta kontrolak.

Instalazioan balorizazioa egiteko hondakin onargarriak hurrengo apartatuetan daude zehaztuta, horiek behar bezala kudeatzeko zehaztapenekin batera.

D.1.1.– Hondakin onargarriak.

Derichebourg España SAK Hondakinen Europako Zerrendako EHZ kodea duten hondakin hauek tratatu ahal izango ditu goian aipatutako tratamendu-sistemen bidez. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen, zeinaren bidez aldatu egin baitzen 2000/532/EE Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauan xedatutakoa betez. Halaber, aipatutako erabakiaren arabera

emango zaie hondakinei dagokien kodea eta sailkapena, baita Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera ere. Erregelamendu horrek ordezten du Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (2008/98/EE Zuzentaria, hondakinei buruzkoa eta zuzentaria jakin batzuk indargabetzen dituena). Hortaz, ondoren adierazten diren hondakin hauek baino ez dira onartuko:

a) Hondakin metaliko arriskugabeen tratamendu mekanikoa.

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
01 01 01	Mineral metalikoen erauzketaren hondakinak
01 01 02	Mineral ez-metalikoen erauzketako hondakinak
02 01 10	Hondakin metalikoak
10 02 10	ljezketatiko azala
10 05 04	Bestelako partikulak eta hautsak
10 06 04	Bestelako partikulak eta hautsak
10 08 04	Partikulak eta hautsak
10 10 12	10 10 11 kodean zehaztutakoez bestelako partikulak
10 12 06	Molde baztertuak
12 01 01	Burdin metalen karraka-hautsak eta txirbilak
12 01 02	Burdin metalen hautsa eta partikulak
12 01 03	Metal ez-burdinazkoen karraka-hautsak eta txirbilak
12 01 04	Metal ez-burdinazkoen hautsa eta partikulak
12 01 13	Soldadura-hondakinak
12 01 21	Esmerilatze harri eta material erabiliak, 12 01 20 kodean zehaztutakoez bestelakoak
15 01 04	Metalezko ontziak
16 01 06	Bizitza baliagarriaren bukaeran dauden eta likidorik edo beste osagai arriskutsurik ez duten ibilgailuak
16 01 17	Metal ferrosoak
16 01 18	Metal ez-ferrosoak
16 02 14	Ekipamendu baztertuak, 16 02 09tik 16 02 13ra bitarteko kodeetan zehaztutakoez bestelakoak
16 02 16	Ekipamendu baztertuetatik kendutako osagaiak, 16 02 15 kodean zehaztutakoez bestelakoak
17 04 01	Kobrea, brontzea, letoia
17 04 02	Aluminioa
17 04 03	Beruna
17 04 04	Zinka
17 04 05	Burdina eta altzairua
17 04 06	Eztainua
17 04 07	Metal nahasiak
17 04 11	17 04 10 kodean zehaztutakoez bestelako kableak
19 01 02	Labe-hondoaren errautsetatik bereizitako burdin metalak
19 10 01	Burdina- eta altzairu- hondakinak
19 10 02	Hondakin ez-burdinazkoak
19 12 02	Burdin metalak
19 12 03	Metal ez-burdinazkoak
20 01 36	20 01 21, 20 01 23 eta 20 01 35 kodeetan zehaztutakoez bestelako ekipamendu elektriko eta elektroniko baztertuak
20 01 40	Metalak

b) Hondakin arriskutsuen transferentzia-zentroa (gehienezko biltegitratze-gaitasuna: 120 tona).

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
16 06 01*	Berunezko bateriak
16 02 15*	Ekipamendu baztertuetatik kendutako osagai arriskutsuak
16 06 02*	Nikel-kadmiozko metagailuak
16 06 03*	Merkurioa duten pilak
20 01 21*	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten bestelako hondakinak
20 01 23*	Klorofluorokarburoak dituzten ekipamendu baztertuak
20 01 33*	Bateriak eta metagailuak, 16 06 01, 16 06 02 edo 16 06 03 kodeetan zehaztutakoak, eta bateriak eta bateria horiek dituzten metagailuak, sailkatu gabe daudenak.
20 01 34*	20 01 33 kodean zehaztutakoez bestelako bateriak eta metagailuak
16 06 07*	Litioa edozein formatan duten metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola litio-pilak edo ion-litio metagailuak
16 06 08*	Nikela edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola nikel metal hidruroko (Ni-MH) metagailuak Kode honetatik kanpo geratzen dira nikel-kadmiozko metagailuak eta bateriak
16 06 09*	Beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten metagailuak, pilak edo bateriak
20 01 42*	Litioa edozein formatan duten metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola litio-pilak edo ion-litio metagailuak
20 01 43*	Nikela edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola nikel metal hidruroko (Ni-MH) metagailuak Kode honetatik kanpo geratzen dira nikel-kadmiozko metagailuak eta bateriak
20 01 44*	Beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten metagailuak, pilak edo bateriak

c) GEEHen transferentzia-zentroa.

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
16 02 11*	Klorofluorokarburoak, HCFC, HFC dituzten ekipamendu baztertuak
16 02 13*	Osagai arriskutsuak dituzten ekipamendu baztertuak, 16 02 09tik 16 02 12ra bitarteko kodeetan zehaztutakoez bestelakoak
20 01 35*	Ekipamendu elektriko edo elektronikoko baztertuak, 20 01 21 eta 20 01 23 kodeetan zehaztutakoez bestelakoak eta osagai arriskutsuak dituztenak
200123*-41*	Adibidez, isolatzaile gasduna duten etxetresna elektrikoak
160211*-41*	Adibidez, isolatzaile gasduna duten etxetresna profesionalak
160213*-61*	Informatikako gailu profesional arriskutsuak
200136-62	Informatikako etxeko gailu arriskugabeak
160214-62	Informatikako gailu profesional arriskugabeak
200123*-11*	Tenperatura trukatzeko gailu elektrikoa CFC, HCFC, HC, NH <sub>3</sub> rekin
160211*-11	Tenperatura trukatzeko gailu elektrikoa CFC, HCFC, HC, NH <sub>3</sub> rekin
200123*-12*	Aire girotuko gailu elektrikoa
160211*-12*	Aire girotuko gailu elektrikoa
200135*-13*	Zirkuituetan edo kondentsadoreetan olio duen gailu elektrikoa
160213*-13	Zirkuituetan edo kondentsadoreetan olio duen gailu elektrikoa
200135*-21*	CRT monitoreak eta pantailak
160213*-21*	CRT monitoreak eta pantailak
200135*-22*	Monitoreak eta pantailak, ez CRT eta ez LED ez direnak
160213*-22*	Monitoreak eta pantailak, ez CRT eta ez LED ez direnak
200136-23	Bestelako LED monitoreak eta pantailak
160214-23	Bestelako LED monitoreak eta pantailak



EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
200121*-31*	Deskargako lanparak (Hg) eta lanpara fluoreszenteak
200136-32	LED lanparak
160214-32	LED lanparak
16 02 10	PKB duten edo PKBz kutsatuta dauden ekipamendu baztertuak, 16 02 09 kodean zehaztutakoez bestelakoak
160210*-41*	PKB duten edo PKBz kutsatuta dauden ekipamendu baztertuak, 16 02 09 kodean zehaztutakoez bestelakoak
160210*-51*	PKB duten edo PKBz kutsatuta dauden ekipamendu baztertuak, 16 02 09 kodean zehaztutakoez bestelakoak
16 02 15*	Ekipamendu baztertuetatik kendutako osagai arriskutsuak
16 06 01*	Berunezko bateriak
16 06 02*	Nikel-kadmiozko metagailuak
16 06 03*	Merkurioa duten pilak
17 04 10*	Hidrokarburoak, harrikatz-mundruna eta bestelako substantzia arriskutsuak dituzten kableak
200123*-11*	Klorofluorokarburoak dituzten ekipamendu baztertuak
200135*-51*	Baztertutako ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak, 20 01 21 eta 20 01 23 kodeetan zehaztutakoez bestelakoak eta osagai arriskutsuak dituztenak
Falta da	
160213*-41*	Gailu handiak Kanpoko neurria 50 cm-tik gorakoa dutenak Osagai arriskutsuak dituztenak Profesionala
160213*-51*	Gailu txikiak 50 cm-tik gorako kanpoko neurririk ez dutenak Osagai arriskutsuak eta pilak dituztenak Profesionala
20 01 21*	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten bestelako hondakinak
20 01 23*	Klorofluorokarburoak dituzten ekipamendu baztertuak
200135*-61*	Informatika- eta telekomunikazio-gailuak Osagai arriskutsuak dituzten gailu txikiak Etxekoa
200135*-41*	Gailu handiak, informatika- eta telekomunikazio-ekipoak barne Kanpoko neurria 50 cm-tik gorakoa dutenak Osagai arriskutsuak dituztenak Etxekoa
16 06 07*	Litioa edozein formatan duten metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola litio-pilak edo ion-litio metagailuak
16 06 08*	Nikela edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola nikel metal hidruroko (Ni-MH) metagailuak Kode honetatik kanpo geratzen dira nikel-kadmiozko metagailuak eta bateriak
16 06 09*	Beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten metagailuak, pilak edo bateriak
20 01 42*	Litioa edozein formatan duten metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola litio-pilak edo ion-litio metagailuak
20 01 43*	Nikela edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola nikel metal hidruroko (Ni-MH) metagailuak Kode honetatik kanpo geratzen dira nikel-kadmiozko metagailuak eta bateriak

d) Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinen tratamendua (G1 tratamendu orokorreko eragiketa).

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
16 02 14	Ekipamendu baztertuak, 16 02 09tik 16 02 13ra bitarteko kodeetan zehaztutakoez bestelakoak
200135*-41*	Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak
160213*-41*	Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak
200136-42	Gailu handiak (gainerakoak)
160214-42	Gailu handiak (gainerakoak)
200135*-51*	Osagai arriskutsuak eta pilak dituzten gailu txikiak
160213*-51	Osagai arriskutsuak eta pilak dituzten gailu txikiak
200136-52	Gailu txikiak (gainerakoak)
160214-52	Gailu txikiak (gainerakoak)
200135*-61*	Osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako gailu txikiak

Lerro honetan, honako hauek dira biltzeko baimena duten gailu elektriko edo elektronikoen hondakinen kategoriak:

- 1.– Etxetresna elektriko handiak (hotz-ekipamenduak izan ezik).
- 2.– Etxetresna elektriko txikiak.
- 3.– Informatika- eta telekomunikazio-ekipamendua.
- 4.– Kontsumorako gailu elektronikoak.
- 5.– Argiztapen-gailuak.

e) Kable elektrikoaren edo telekomunikazio-kableen hondakin arriskutsuen tratamendua.

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
17 04 10*	Hidrokarburoak, harrikatz-mundruna eta bestelako substantzia arriskutsuak dituzten kableak

D.1.2.– Hondakinen sarrera kontrolatzea.

Instalaziora balorazioa egiteko iristen diren hondakinen kontrola egin beharko da, ebazpen honen baldintzen arabera onargarriak direla bermatzeko.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Dena dela, kudeatu beharreko hondakinak zabaldu nahi izanez gero, aldezturik Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onospena beharko da, eta ebazpen honen I. apartatuan adierazitakoa bete.

Kudeatzaile baimenduekin akordioak egingo dira GEEHak prestatzeko eta berrerabiltzeko.

Hondakinen hierarkiaren printzipioa aplikatuz eta gailu elektrikoaren edo elektronikoaren, horien osagaien, azpimultzoen eta kontsumigarrien hondakinak berrerabiltzeko prestatzeari lehentasuna emanez, 16 01 06, 16 02 14, 16 02 16, 17 04 11 eta 20 01 36 kodeetako hondakinak soilik instalazioan tratatu ahaliko dira berrerabiltzeko prestatzeko prozesuan alde batera utzi badira eta egiaztatzen bada igaro izana R12 kudeaketa-eragiketa batetik, non fluido mota guztiak –hor sartuta olioak, lubrifikatzaileak, eta abar– eta materialen eta osagaien gaikako tratamendua izan badu, arau aplikagarrietan ezarritakoaren arabera.

Hondakin bat onartzeko aukera egiaztatu eta gero, Derichebourg España SAK onarpenaren agiria bidaliko dio hondakinaren titularrari; bertan baldintzak ezarriko dira, eta, hondakina entregatzen ez bada, baita iraungitze-data ere. Horrez gain, hondakina onartzeko parametro mugatzaileak edo baldintzatzaileak jasoko dira, eta, hala badagokio, hondakin-partida bakoitza hartu aurretik aztertu beharreko parametroak.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorri Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluekin.

Unean uneko egoeraren ezaugarriei erreparatuta, ingurumen-organoak azalpenak eska ditzake, argitu diezaioten zergatik den ekonomikoki eta teknikoki ezinezkoa baimen honen barneko hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzea, eta hori egingo du autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioak aintzat hartuta, eta, betiere, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planaren helburu estrategikoak betetzeko.

Birziklatu edo balorizatu daitezkeen hondakinak helburu horietara bideratuko dira, eta Derichebourg España SAK betetako onarpen-agirietan jasoko da gertaera hori.

Bat etorri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planaren helburu estrategikoetan ezarritakoarekin, hondakinak ebazpen honen babesean emandako onarpen-agiri baten kargura bidali aurretik, ingurumen-organo honek baliozkotu beharko du agiri hori. Ezingo da Derichebourg España SAK kudeatu beharreko hondakin arriskutsurik jaso alde aurretik onespren-agiria organo honek baliozkotzen ez badu. Baliozkotzea 15 egun naturaleko epean egin beharko da, agiria jasotzen denetik aurrera. Epe hori igarota, ez bada izan berariazko posizionamendurik, hura aldekoa dela ulertuko da. Baliozkotu beharreko onarpen-agirian, besteak beste, honako datu hauek jasoko dira: parametro mugatzaileak, hondakinen identifikazioa eta iraungitze-data, baldin eta hondakinik ez bada entregatzen.

Hondakin-partida bat baztertu egiten bada, ez dituelako betetzen onartzeko parametro mugatzaileak, berehala jakinarazi beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Horrekin batera, hondakinaren izaera –EHZ kodea adierazita– jatorria, kantitatea, enpresa garraiatzailea, bazterketaren arrazoia, baztertutako hondakinaren helmuga eta bestelako gorabeheri buruzko datuak eman beharko dira.

Onartu ez den partida beste autonomia-erkidego batetik badator, jatorrizko ingurumen-organoari ere jakinarazi beharko zaio.

Hondakinak onartu eta jasotzeko aukera egiaztatzeko xedearekin, Derichebourg España SAK hondakin horiek onartzeko parametroen egiaztapena ahalbidetuko duten baliabide teknikoak eta giza baliabideak eskuragarri izan beharko ditu une oro. Onarpena baldintzatzen duten parametroen zehaztapena beti eta hondakinen partida guztietan egin beharko da homologatutako metodo baten bitartez eta laborategiko buru batek ikuskatuta. Laborategiko burua zentroko langilea izango da, eta goi-mailako titulu espezializatua eduki beharko du.

Baimendutako EHZ kodea duen hondakin bat onartzerik ez badago, ezezko onarpen-agiria egin beharko da, hondakin hori ezin kudeatu ahal izatearen arrazoiak azalduz.

#### D.1.3.– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuek zola iragazgaitza izango dute, eta beharrezko maldak eta balizko jarioak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko.

b) Zamalanak egitean, substantzia arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak bete beharko dira.

c) Instalazioan egiten diren hondakinen zamalanek eta manipulazioek, baita ekipamenduen estankotasunak ere, emisio lausoak edo kontrolik gabeak saihestu beharko dituzte, edo, saihestu ezin denean, ahalik eta gehien murriztu.

d) GEEHak jasotzeko eta garraiatzeko baldintzek GEEHak eta horien osagaiak prestatzea eta berrerabiltzea ahalbidetu behar dute, eta ez dira apurtu behar, ez gehiegi pilatu, ez substantziarik isuri edo materialik galdu, ezta oliorik eta likidorik isuri behar ere. Behar bezala beteko dira horiek jaso eta garraiatzeko baldintza espezifikoak, Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren VII. eranskinen jasotzen direnak.

e) Aurrez manipulatu diren, hondatuta dauden edo osagai guztiak ez dituzten GEEHak jasotzen badira, gertakari hori behar bezala jakinarazi beharko da D.1.5 apartatuan aipatzen den fitxategi kronologikoan.

#### D.1.4.– Jasotako hondakinen biltegitratzea.

a) Balorizatu beharreko hondakinen gehieneko biltegitratze-epaia bi urtekoa izango da hondakinak arriskugabeak badira, eta sei hilekoa, aldiz, arriskutsuak badira.

b) Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru estankoak izan behar dituzte, aurreikusitako karga guztiak jasateko eta horien ihesak edo jarioak atxikitze gaitasunarekin. Hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako biltegitratze-gune bereziak izango dira.

c) Hondakin arriskutsuak biltegitratzetik eratorritako arriskuak murrizte aldera, Derichebourg España SAK, bere instalazioetan, hondakinok gune berezi batean biltegitratu beharko ditu. Gune hori estalita egongo da, eta lurzoru estankoak izan beharko ditu.

d) Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen jarioak kanpora jaria ez daitezzen. Bilketa-sistema horiek independenteak izan behar dute, baldin eta jarioen bat gertatu eta nahasiz gero, arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakarten hondakineterako.

e) Baldin eta hondakinak desagertu, galdu edo eskapatuko balira, berehala jakinaraziko zaie gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eta Asparreneko Udalari.

f) Aurrekoez gain, GEEHen kasuan, honako hauek bete beharko dira:

i) Instalazioak hondakinak pisatzeko baskula izango du.

ii) GEEHak bereizita bildu beharko dira, gutxienez, 110/2015 Errege Dekretuaren VIII. eranskinen 1. taulan aurreikusten diren frakzioak kontuan hartuta: «GEEHen kategorien, GEEHen bilketa-frakzioen eta EHZ-TEEH kodeen arteko baliokidetasunak».

iii) Halaber, GEEHak biltegitratzeko eremu berezi bat sortu beharko da, berrerabiltzeko presatzeaz arduratzen diren eragileek ikuskatzeko baldintza egokiekin.

g) Instalazioaren etenaldi teknikoaren egoera berezietan, edo instalazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondoriozko bestelako egoeretan, Derichebourg España SAK badu D.1.1 apartatuan adierazitako hondakinen transferentzia-zentro gisa jarduterik, hondakinak kudea daitezzen beste instalazio baimendu batera eramateko.

#### D.1.5.– Kudeatutako hondakinen datuak erregistratzea.

Bat etorri Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan xedatutakoarekin, Derichebourg España SAK artxibo kronologiko bat izan beharko du, formatu fisiko edo telematikoan. Artxiboan, datu hauek jasoko dira, ordena kronologikoan: hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa. Hala dagokionean, onartutako eta kudeatutako hondakinen garraio-bidea eta bilketa-maiztasuna ere jasoko dira. Baztertutako hondakinei dagokienez, berriz, kantitatea, baztertutako hondakina sortzen duen enpresa, baztertzeko arrazoia, baztertutako hondakinaren azken helmuga eta beste gorabehera batzuk jasoko dira. Aipatutako artxibo kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa sartu behar da.

Artxibo kronologiko hori hiru urtez gorde beharko da gutxienez, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluari jarraikiz, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da fitxategi kronologikoan jasotako informazioaren memoria laburra, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

GEEHak kudeatzeko, artxibo kronologikoak bat etorri beharko du 110/2015 Errege Dekretuaren XI. eranskinarekin, eta, bertan, gutxienez honako datu hauek jasoko dira ordena kronologikoan:

A) Sarrera.

a) GEEHa noiz sartu den.

b) GEEHa sartu duen erabiltzailearen edo erakundearen identifikazioa (kasuan-kasuan aplikatutakoaren arabera): GEEHen partikular/banatzaille/garbigune/ekoizle-sare/ekoizle profesionala.

c) Izena (sozietate-izena), helbidea, autonomia-erkidegoa, IFZ, ingurumeneko identifikazio-zenbakia, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroko inskripzio-zenbakia.

d) Garraiolaria (halakorik balego): Izena (sozietate-izena), IFZ, helbidea, autonomia-erkidegoa eta kudeatzailearen kodea.

e) Entregatutako gailu mota eta marka.

f) Pisua.

g) EHZ-GEEH kodea.

h) Erabilera (etxekoa/profesionala).

i) Serie-zenbakia (ahal den guztietan).

j) GEEHaren etiketaren edo instalazioan GEEHak gordetzen diren edukiontzien erreferentzia-zenbakia.

k) Oharrak eta gorabeherak, adibidez funtzionamendu-egoerari buruzkoak, berriz erabiltzeko aukerari buruzkoak, beterik dagoen, etab.

Gailu txikiei eta lanparei dagokienez, sarrerako banakako informazio hori ez da beharrezkoa izango, eta horren ordez frakzio horretarako berariazko edukiontzien identifikazioa beharko da.

B) GEEHak edukiontzi edo kaiolatan irtetea:

a) Edukiontzia edo kaiola instalaziotik noiz irten den.

- b) EHZ-GEEH kodea.
- c) Edukiontzi-erreferentzia, GEEHen irteera-pisua, edukiontzia.
- d) Garraiolariaren identifikazioa.
- e) Helmuga (hondakinak kudeatzeko instalazioaren datuak).
  - 1.– Helbidea eta autonomia-erkidegoa.
  - 2.– Mota: berrerabiltzeko prestatzeko zentroa (BPZ), kargaren transferentzia- edo bilketa-zentroa, tratamendu espezifikorako instalazioa.
  - 3.– Ingurumeneko identifikazio-zenbakia.
  - 4.– IFZ.
  - 5.– Ekoizpen- eta kudeaketa-erregistroko inskripzio-zenbakia.
- f) Bildu eta kudeatzen duen erakundeari buruzko informazioa (esleipen-bulegoa edo biltzeko instalazioak kontratatutako kudeatzailea).
- g) Esleipen-bulegoaren bilketaren erreferentzia-zenbakia.
- h) Biltzeko instalaziotik bilketa finantzatzen duen erantzukizun hedatuko sistema.

Artxibo kronologiko horrek, deskontaminazioaren pean jartzen diren GEEHen kasuan, informazio hau ere jasoko du:

- a) Tratamendu-lanak, datak, kontrol-parametroak eta prozesuari buruzko datuak.
- b) Aldi baterako biltegiatutako hondakin arriskutsuak, gailu elektriko edo elektroniko deskontaminatuetakoak: mota, identifikazio-kodeak, kopuruak eta ontziratzeko datak, instalazioko kokapena.
- c) Kudeatzaile baimenduari entregatutako hondakin arriskutsuak: mota, identifikazio-kodea, kopuruak, entrega-datak, kudeatzailearen identifikazio-datuak eta entrega bakoitza egiaztatzen duen identifikazio-dokumentuaren zenbakia.
- d) Berrerabiltzeko merkaturatutako gailu elektriko eta elektronikoaren piezak eta osagai desmuntatuak: kopuruak pisuaren arabera, motak.
- e) Hondakin arriskugabeen kudeatzaile baimenduari birziklatzeko entregatutako gailu elektriko eta elektronikoaren piezak eta osagaiak: mota, identifikazio-kodea, kopuruak, entrega-datak eta hartu dituen kudeatzailearen identifikazio-datuak, kasu bakoitzean.

Laburpen-memoriak ekitaldi bakoitzaren amaieran behin-behinean biltegiatutako hondakin eta hondakin kopuruaren zerrenda ere jasoko du, lantokian tratatzeko onartuta baina oraindik tratatzeke dauden hondakinena bai eta sortutako hondakinena ere.

GEEHen kudeaketa-jarduerarako, urteko memoriak otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren XII. eranskineko gutxieneko edukia jaso beharko du.

Artxibo kronologikoa eta jasotako GEEHei buruzko urteko memoria plataforma elektronikoan kargatuko dira erabilgarri dagoenean, 110/2015 Errege Dekretuaren 55. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Plataforma elektroniko horren bitartez, fitxategi kronologikoari eta urteko memoriaren lanketari dagozkion obligazioak bete ahal izango dira.

Aurreko apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

#### D.1.6.– Estatuz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Hondakinen lekualdaketei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

GEEHen kudeatzaileei dagokienez, GEEH horiek Europar Batasuneko herrialdeetara nahiz Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetara lekualdatzeari buruzko informazioa kargatuko da 110/2015 Errege Dekretuaren 55. artikuluan aipatzen den plataforma elektronikoan.

Horrez gain, baldin eta aurreikusten bada zabortegean deuseztatzea dela inportatu beharreko hondakinak dela inportatutako hondakinak balorizatzeko edo deuseztatzekeo tratamenduaren ondoren helmugako instalazioan lortutako korrante esanguratsuren bat, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020 Planean jasotako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

#### D.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

##### D.2.1.– Instalazioan tratatutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Hargatik eragotzi gabe D.1 apartatuan adierazten diren hondakinak onartu, jaso, ikuskatu eta biltegitratzeko baldintza eta kontrolak, Derichebourg España SAk bermatu beharko du tratamendu-lerro hauetarako baldintza hauek betetzen dituela:

Tratamendu mekanikoa.

Manipulazio- eta tratamendu-eragiketak beti zoladura iragazgaitz baten gainean egingo dira.

Transferentzia-zentroa – Aldi baterako biltegitratzea.

a) Aldi baterako biltegitratze-jardueraren barruan, honako hauek sartuko dira: multzokatzea, produktua edukiontziz aldatu gabe, lantegian horretarako gaitutako tokian, baita haren zama, hustuketa eta berrontziratzea ere beharrezkoa izanez gero, eta ez da ontzien barruko aldearen edo ontzietan gordetzen diren hondakinen gainean eragina daukan bestelako manipulaziorik aintzat hartzen.

b) Hondakin solteen kasuan, batera biltegitratu ahal izango dira homogeneoak direnak beren izaera, osaketa eta kodifikazioarekiko; alabaina, alde aurretik karakterizazioa egin beharko da, ziurtatzeko ezen batera biltegitratzeak ez dakarrela arriskua areagotzerik, ezta azken buruko kudeaketa zailtzetik.

c) Halaber, nahitaez bete beharko dira hondakin arriskutsuak ontziratze eta etiketatzeari buruzko jarraibideak, indarreko araudian jasotakoak.

Era berean, Europako Hondakin Katalogoan ezarritako kodearen bidez identifikatu beharko dira hondakinak.

d) Hondakinak aldi baterako biltegitratzeko instalazioetan, hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuak lurzoru estankoa izango du, eta beharrezkoak diren maldak eta balizko jarioak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo gai arriskutsuen beste ibilgailu batzuetara hurbildu gabe.

e) Hondakinak aldi baterako gordetzeko instalazioek estalki bat izango dute, prezipitazio atmosferikoak sartzeari saihesteko; gainera, lurzoru estankoa eta beharrezko maldak eta balizko jarioak biltzeko sareak izango dituzte.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurrii dagokienez, biltegitratutako hondakinek likido sukoiak eta erregaiak eta likido korrosiboak biltegitratzearen inguruan indarrean dagoen arautegian ezar-

tzen diren exijentziak bete beharko dituzte, baita suteen prebentzio- eta babes-arauak ere, eta behar bezala identifikatu beharko dira ezagutu eta bereizi ahal izateko.

g) Jarioak eragin ditzaketen hondakin arriskutsuak kubeta independenteetan biltegitratuko dira, eta, betiere, elkarrekin bateragarriak diren hondakinak dituzten ontzietara bideratuko da kubeta bakoitza. Jarioak biltzeko kubetek zoru eta horma iragazgaitzak izango dituzte, erabat estankoak direnak. Kutxatila horietan jasotako efluenteak kudeatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio.

h) Baimen honi lotutako hondakin arriskutsu ontziratutako guztiak bereizietan biltegitratuko dira, motaren arabera identifikatuta.

i) Hondakin arriskutsuak ezingo dira sei hilabetetik gora biltegitratu.

j) Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzeko jardueran sortutako efluente oro, ur beltzak izan ezik, bereizita jaso beharko da, eta haren ezaugarrien arabera behar bezala kudeatu, eta inola ere ezin izango da sarera isuri.

k) Indarraldiaren arabera, Derichebourg España SAK eta enpresak igorritako hondakin arriskutsuen kudeatzaile hartzaileen artean hitzartutako onarpen-kontratu edo gutunen indarraldia aldizka egiaztatu beharko da, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren aurrean. Hondakinak hartuko dituzten kudeatzaileak ez badaude Espainian kokatuta, mugaz gaindiko lekualdatzeak arautzen dituen Europar Batasuneko araudia bete beharko da.

l) Ahal den guztietan berrerabilpena barne hartzen duten akordioak sinatuko dira. Horretarako, GEEHak norako horretarako berrikusiko dira, bat etorritik Gailu elektriko eta elektronikoak hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren IX.A eranskineko irizpideekin.

m) GEEHei ezingo zaie R4 eragiketarik egin, kudeatzaile baimenduaren tratamendu espezifikorik jaso ez badute. Tratamendu horretan, gutxienez, mota guztietako jariakinak kendu beharko dira, olioak, lubrifikatzaileak eta bestelakoak barne, eta material eta osagaien tratamendu gaikakoa egin beharko da, Gailu elektriko eta elektronikoak hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren XIII. eranskinean xedatutakoari jarraikiz. Era berean, GEEHak ezingo dira prentsatu, zatitu edo trinkotu, baldin eta aurretik igaro ez badute dagokion tratamendu espezifikoko prozedura.

GEEHak tratatzeko lerroa.

Tratatu beharreko gailu elektrikoak edo elektronikoak eremu egokietan bilduko dira; eremu horiek azalera iragazgaitzak eta jarioak jasotzeko instalazioak izango dituzte, eta aurreikusi daitezkeen karga guztiei eusteko gai izango dira.

Manipulazio- eta tratamendu-eragiketarako beti pabiloi estalian egingo dira; pabiloiak zoladura iragazgaitza izango du, eta jarioak jasotzeko sistemez hornituta egongo da.

Bereizita jasotako gailu elektriko eta elektronikoetatik gutxienez honako osagai, substantzia eta prestakinak atera beharko dira, ingurumenara heda ez daitezkeen:

- Poliklorobifeniloak (PCB) dituzten kondentsadoreak.
- Merkurioa duten osagaiak, esaterako, etengailuak edo hondo-argiztapena duten bonbillak.
- Erremintarik erabili gabe, gailutik atera daitezkeen pilak eta metagailuak.
- Telefono mugikorretarako, oro har, eta bestelako gailuetarako zirkuitu inprimatuen txartelak, zirkuitu inprimatuen txartelaren azalera 10 zentimetro koadrokoa baino handiagoa baldin bada.
- Toner-kartutxoak, likidua eta oreka, baita koloretako tonerra ere.
- Olioak.



- Material piroatzeratzaile bromatuak dituzten plastikoak.
- Izpi katodikodun hodiak.
- Gasezko deskarga-lanparak.
- 100 cm<sup>2</sup>-ko azalera baino handiagoa duten kristal likidozko pantailak (armazoiarekin batera, kasuan-kasuan) eta hondoko argiztapen gisa gasezko deskarga-lanparak dituzten guztiak.
- Amiantoa duten osagaiak.
- Kanpoko kable elektrikoak.
- Zeramikazko zuntz erregogorrek dituzten osagaiak.
- Substantzia arriskutsuak dituzten kondentsadore elektrolitikoak (altuera > 25 mm, diametroa > 25 mm edo antzeko proportzioetako bolumena).

17 04 10\* kodea duen hondakinaren kasuan, deskontaminatze-eragiketak beti pabiloi estalian egingo dira; pabiloiak zoladura iragazgaitza izango du, eta jarioak jasotzeko sistemaz hornituta egongo da.

Kudeatu nahi bada gailu elektriko edo elektronikoen hondakin arriskutsu bat, EHZ 17 04 10\* kodea duena eta 2014ko azaroaren 27ko Ebazpenak baimendutako proba industrialaren bitartez probatutako hondakinaren (berunezko azala duen kablea) osagai eta arrisku-ezaugarri desberdinak dituena, eskabidea aurkeztu beharko zaio organo honi, baimen honetako bigarren ataleko I. azpiatalean ezarritakoa betetzeko.

D.2.2.– Kudeatutako hondakinen bizitza-amaierarako bete beharreko baldintzak.

Kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko eta aluminiozko txatarren kasuan, dagozkien adostasun-deklarazioak egin direla egiaztatu beharko da, bat etorriz Europako Kontseiluaren 2011ko martxoaren 31ko 333/2011 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoarekin. Erregelamendu horretan, txatar mota jakin batzuek hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak finkatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera.

Era berean, aipatutako arauaren I. eranskinean finkatutakoarekin bat ez datozen ezaugarriak dituzten kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko eta aluminiozko txatarren kasuan, hondakin gisako kudeaketa egiaztatuko da, kudeatzaile baimendu baten dagokion onarpen-dokumentua aurkeztuta.

D.2.3.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

D.2.3.1.– Baldintza orokorrak.

Derichebourg España SAren instalazioa ustiatzean, honako baldintza hauek bete beharko dira: atmosferara egingo diren emisioek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako baldintza teknikoak betetzea, giza osasuna eta ingurumena zainduta, betiere.

Prozesuan zehar aireratzen den emisio kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, behar denean, emisio horien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema bate-tik igaro ondoren.

Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatua badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuzko emisioen probabilitatea murrizteko eta horien ondoriozko efluenteez giza osasunerako eta segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak

tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen temperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien laburtuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik daudenaldiak.

Atmosferako kutsadurari aurre egiteko neurriak daude jasota proiektuan, eta beti beteko dira neurriok. Bereziki, hautsa isurtzea ekiditeko neurriak hartuko dira: hala nola, agregakin-multzoak ureztatzea eta bideak garbitzea.

Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta guneen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolako erakunde batek egindako hasierako IKE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahalko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

#### D.2.3.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Derichebourg España SAren instalazioak, zeinaren jarduerari urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren eranskineko B 09 10 09 06 kodea baitagokio –txatarra edo gainerako hondakin metalikoen zatikatzaileak edo birringailuak– honako foku hauek ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiari jarraituz katalogaturik:

Fokua	Kodea	Izena	Altuera (m)	Atala (m <sup>2</sup> )	APCA katalogazioa	Jarduteko araubidea
1	0100012897-01	Zatikatzailea	13,8	0,28	09 10 09 06 B	Foku sistematikoa
2	0100012897-02	Kable-birringailua_1 Irteera (ezker)	14,8	0,28	09 10 09 06 B	Foku sistematikoa
3	0100012897-03	Kable-birringailua_2 Irteera (eskuin)	14,8	0,28	09 10 09 06 B	Foku sistematikoa

Foku ez-sistematikoetakoren bat, batez beste, urtean hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzera pasatuko balitz, ordubate baino gehiagoko iraupen indibiduala izanik, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, emisio-foku gisa araupetu beharko da.

Era berean, baldin eta urte jakin batean foku sistematiko baterako baldintza horietako bakar bat ere betetzen ez bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren gaineko kontrol egitea; kontrola hurrengo urtean egin beharko da, betiere, kontrolatik salbuesteko baldintzek beren horretan jarraitu ezean. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

#### D.2.3.3.– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren emisioetan ez dira muga-balio hauek gaindituko:

Fokuak	Substantziak	Emisioen muga-balioak	Metodoak
1	Gutzizko partikulak (GP)	5 mg/Nm <sup>3</sup>	UNE-EN 13284-1
2	Gutzizko partikulak (GP)	5 mg/Nm <sup>3</sup>	UNE-EN 13284-1
3	Gutzizko partikulak (GP)	5 mg/Nm <sup>3</sup>	UNE-EN 13284-1

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko temperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duena beteko da. Ikusten bada emisio muga-balioen bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

#### D.2.3.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo bigarren apartatuaren D.2.3.2 azpiapartatuan ezarritako gorenko kotatik behera. Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta guneen segurtasuna eta zerbitzuak.

Emisio lausoak minimizatzeko helburuarekin, ihesak antzemateko ekipamenduak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

#### D.2.4.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

##### D.2.4.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isurpena sortzen duen jarduera mota nagusia: hondakinen balorizazioa.

Isurketa-gunea	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-gunearen UTM koordinatuak
PV1	Ur sanitarioak + IG1 guneko euri-urak	Asparrenako HUA	X: 555892 Y: 4746793
PV2	IG2 guneko euri-urak + hozte-putzua	Asparrena industrialdeko kolektorea	X: 555980 Y: 4746777

##### D.2.4.2.– Isurketen muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isurketen parametroak Asparrenako Udalaren isurketak eta hondakin-urak araztea arautzen duen Erregelamenduan ezarritakoak izango dira (2004ko otsailaren 27ko ALHAO, 25. zk.); honako hauek dira parametroak, isurketa bakoitzerako zehazten diren gehieneko muga-balioekin:

## II motako muga-parametroa.

Parametroak	Isurketaren muga-balioak
Tenperatura	40.°C
Solido jalkikorrak	600 mg/l
pHa	6 eta 9,5 artekoa
N- amonioa Agresib.	100 mg/l
N-amoniakala	300 mg/l
Olioak eta koipeak	100 mg/l
Olio mineralak	50 mg/l
Zianuroak, guztira	2 mg/l
Sulfuroak	2 mg/l
Sulfatoak	1500 mg/l
Fenolak	5 mg/l
Artsenikoa	1 mg/l
Kadmioa	0,5 mg/l
Kromoa, guztira	2 mg/l
Kobrea	5 mg/l
Burdina	50 mg/l
Nikela	5 mg/l
Beruna	1 mg/l
Zinka	10 mg/l
Merkurioa	0,05 mg/l
Zilarra	1 mg/l
Toxikotasuna	50 equinox/l

Ezin izango dira diluzio-teknikak erabili isurien muga-balioak lortzeko.

Horrez gain, emisioen muga-balio hauek ezartzen dira 1. eta 2. isurketa-guneetarako. Balio horiek betetzen diren ebaluatzeko, azken ingurune hartzailera egindako isurketa, eskualdeko hondakin-uren araztegi hartzailean murriztutako kutsadura eta tratamendu-lerro bakoitzak efluenteari eiten dion ekarpena kalkulatu da:

Parametroak	Isurketaren muga-balioak
Hidrokarburoen indizea (HI)	10 mg/l
Artsenikoa	0,05 mg/l
Kadmioa	0,05 mg/l
Kromoa, guztira	0,15 mg/l
Kobrea	0,5 mg/l
Nikela	0,5 mg/l
Beruna	0,3 mg/l
Zinka	2 mg/l
Merkurioa	5 ug/l

#### D.2.4.3.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Instalazioko euri-urak hidrokarburo-bereizgailu eta dekantatze-ontzi batean tratatzen dira. Dekantatze-ontzia 8 m<sup>3</sup>-ko aurrefabrikatutako hormigoi armatuzkoa da, eta koipe- eta hidrokarburo-bereizgailuak hiru ganbera ditu, bakoitza 8 m<sup>3</sup>-koa.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla egiaztatuz gero, Derichebourg España SAK beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu arazteko instalazioetan, isurketak baimendutako ezaugarrietara egokitzeko, Administrazioari jakinarazi ondoren, eta, hala badagokio, baimena aldatzeko eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurpenak kontrolatzeko kutxatila bat jarriko da baimendutako hondakin-uren mota bakoitzerako; kutxatila horiek isurpenen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Administrazioak egoki deritzonean ikuskatzeko sarbide zuzena duen lekuan kokatuko dira kutxatilak.

#### D.2.5.– Plantan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak kudeatuko dira Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoen ezarritakoaren arabera, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helmuga egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; beraz, hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatu: haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Birsortzea-berrerabiltea lehenetsiko da balorizatze beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, hondakin horiek instalazio haietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken helmuga zabortege baimenduan ezabatzea dela aurreikusten bada, hondakinak karakterizatze, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak xedatutakoari jarraituko zaio, bai eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideei ere.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak –ebazpen honetan daude jasota– orientagarriak dira soilik; kantitate horiek kalkulatzeko kontuan hartu dira jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Hargatik eragotzi gabe abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan (4.d apartatua) ezarritakoa, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea: baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru iragazgaitza izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan edo oso bustita egoteagatik, hondakinok isurketak edo lixibatuak sorbaditzakete, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak izan beharko dira, balizko jarioak kanpora irten ez daitezzen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo hai-zeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion sortutako hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriari dagokienez, bat etorritik, betiere, honako zerrenda honetan ezarritako irizpideekin: Europako Hondakin Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014/EB Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (hondakinei buruzko zuzentarau horrek zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta hura izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Baldin eta hondakinak desagertu, galdu edo eskapatuko balira, berehala jakinaraziko zaie gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eta Asparreneko Udalari.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorritik Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan aurreikusitako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinarazpena aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan hondakinak lekualdatzeari buruz ezarrita dagoena bete beharko da.

#### D.2.5.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak hondakin arriskutsu hauek aitortu ditu:

2022ko azaroaren 28a, astelehena

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeatzeko bidea	Biltegitratzeko modua	Sortze- prozesua	Ekoi- zenbatetsia (kg/urte)
16 06 01*	Berunezko bateria erabiliak	HP8	R4	Edukiontzia	Zerbitzu orokorrak	500
13 02 05*	Olio erabiliak	HP5	R9	Bidoia		3000
16 01 21*	Hidrokarburodun tenkagailuak	HP5	R13	Bidoia		50
16 01 07*	Olio-iragazki erabiliak	HP5	R13	Bidoia		189
16 01 14*	Izotz-kontrakoa	HP5	R13	Bidoia		100
12 01 09*	Taladrina erabilia	HP5	D13	Bidoia		puntuala
20 01 21*	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten bestelako hondakinak	HP6	R13	Identifikatutako eremua		puntuala
14 06 03*	Disolbatzaile erabilia eta ez- halogenatua	HP3	R13	Bidoia		500
16 05 04*	Aerosolak (substantzia arriskutsuek kutsatuak)	HP3	R4	Edukiontzia		5
15 02 02*	Xurgatzaileak, iragazkiak eta zapiak (substantzia arriskutsuek kutsatuak)	HP5	D15	Bidoia		Hondakinak multzokatzea
15 01 10*	Metalezko ontziak (substantzia arriskutsuek kutsatuak)	HP5	R4	Edukiontzia/big-bag poltsak	puntuala	
15 01 10*	Plastikozko ontziak (gai arriskutsuek kutsatuak)	HP5	R3	Edukiontzia/big-bag poltsak	puntuala	
13 05 02*	Koipe- eta hidrokarbu- bereizgailuetako lohiak	HP5	D13	Edukiontzia	Hondakin-uren tratamendua	2500
16 02 15*	Ekipamendu baztertuetatik kendutako osagai arriskutsuak	HP6	R13	Edukiontzia/big-bag poltsak	GEEH arriskugabeen tratamendu aurreko bereiztea	300
16 06 02*	Nikel-kadmiozko metagailuak	HP6	R13	Edukiontzia		400
16 06 03*	Merkurioa duten pilak	HP6	R4	Edukiontzia		400
20 01 21*	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten bestelako hondakinak	HP14	R13	Identifikatutako kutxa		290
20 01 33*	16 06 01, 16 06 02 edo 16 06 03 kodeetan aipatutako bateriak eta metagailuak, eta bateria horiek dituzten bateria eta metagailu saikatugabeak	HP6	R13	Identifikatutako eremua		400
16 02 10*	Klorofluorokarbuoak dituzten tresneria baztertuak	HP6	D15/R13	Identifikatutako kutxa		puntuala
16 02 10*	Poliklorofeniloak dituzten ekipamendu baztertuak	HP6	D15/R13	Identifikatutako kutxa		puntuala
16 02 13*	Bestelako osagai arriskutsuak dituzten ekipamendu baztertuak	HP6	D15/R13	Identifikatutako eremua		puntuala
16 06 07*	Litioa edozein formatan duten metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola litio-pilak edo ion-litio metagailuak	HP14	R4	Identifikatutako eremua		puntuala
16 06 08*	Nikela edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola nikel metal hidruoko (Ni-MH) metagailuak Kode honetatik kanpo geratzen dira nikel-kadmiozko metagailuak eta bateriak					
16 06 09*	Beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten metagailuak, pilak edo bateriak					
20 01 42*	Litioa edozein formatan duten metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola litio-pilak edo ion-litio metagailuak					
20 01 43*	Nikela edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola nikel metal hidruoko (Ni-MH) metagailuak Kode honetatik kanpo geratzen dira nikel-kadmiozko metagailuak eta bateriak					
20 01 44*	Beste substantzia arriskutsu batzuk dituzten metagailuak, pilak edo bateriak					
16 02 15*	LCD pantaila txikiak, 100 cm <sup>2</sup> -ko azalera baino handiagoa dutenak	HP14	R4	Identifikatutako eremua		puntuala
16 02 15*	Kondentsadore elektrolitikoak (substantzia arriskutsuak dituztenak)					
16 06 05*	Bestelako pila eta metagailuak					

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeatzeko bidea	Biltegitratzeko modua	Sortze- prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
160211*-11*	CFC, HCFC, HC eta NH <sub>3</sub> duten gailuak				GEEHen transferentzia-zentroa	
160211*-12*	Aire-girogailuak					
160213*-13*	Zirkuituetan edo kondentsadoreetan olioak duten gailuak					
160213*-21*	CRT monitoreak eta pantailak					
160213*-22*	Monitoreak eta pantailak, ez CRT eta ez LED ez direnak					
16 0602*	Nikel-kadmiozko metagailuak					
16 06 03*	Merkurioa duten pilak					
20 0121*	Hodi fluorezenteak					
200123*-11*	CFC, HCFC, HC eta NH <sub>3</sub> duten gailuak					
200123*-12*	Aire-girogailuak					
20 0133*	Bateriak eta metagailuak					
200135*-13*	Zirkuituetan olioak duten gailuak					
200135*-21*	CRT monitoreak eta pantailak					
200135*-22*	Monitoreak eta pantailak, ez CRT eta ez LED ez direnak					

a) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera ezartzen dira, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarritzkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran. Horiek definitzen dituzte mota eta hondakinaren osagai arriskutsuak. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeke eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, leheneratzea edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan lagatze- edo ezabatze-kodeak balorizatzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela eta, jario-rik gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak jariatuta edo lurrunduta gal ez daitezzen. Aurreko puntuan aipatutako ontziak argi, irakurgarri eta ezin ezabatzeko moduan etiketatu beharko dira, eta, betiere, indarreko araudiaren arabera.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetetik gora eduki biltegian. Salbuespen-egoeretan, ingurumen-organoak epe hori aldatu ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeke. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik, eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrol- eta jarraipen-agiria bete beharko da. Derichebourg España



SAk fitxategian erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

g) Egiaztatu egin beharko da ezen hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak bete egiten dituela halako gaiak garraiatzeko indarreko legerian ezarritako baldintzak.

h) Derichebourg España SAK sortutako olio erabilia industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko da.

i) Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinak; besteak beste, lanpara fluoreszenteenak. Halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute pilen eta metagailuen hondakinek. Kudeatzaile baimenduaren onarpen-agiria izateko, eraman aurretiko jakinarazpena egiteko eta kontrol- eta jarraipen-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman izanaren egiaztagiria hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

j) Derichebourg España SAK, PCB eduki dezaketen gailuak dituen heinean, haiek egoki kudeatu daitezten, xedapen hauetan ezarritako eskakizunak bete behar ditu nahitaez: 1378/1999 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, Poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatze eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen, eta 228/2006 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, errege-dekretu hori aldatzen duena.

k) Derichebourg España SAK Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamenduak –ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoak– adierazten dituen substantziak baditu, berreskuratu egingo dira, alderdiek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu gailuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Derichebourg España SAK urtero adierazi beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, haien helmuga eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen zerrenda. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidaliko du.

m) Bat etorri Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan xedatutakoarekin, Derichebourg España SAK urtero adierazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, helmuga eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen laburpen-memoria. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidaliko du.

n) Bat etorri Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikularekin, artxibo kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Fitxategi hori gutxienez 3 urtez gorde beharko du, eta urtero bidali beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

o) Hondakin arriskutsuak kudeatzeko funtsezko oinarrietako bat betetzeko, zeinaren helburua baita hondakin horiek ahalik eta gehien murriztea baldin eta urtero hondakin arriskutsuen 10 tona baino gehiago sortzen badira, Derichebourg España SAK gutxienez lau urterik behin, plan bat aurkeztu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari hondakin arriskutsu horiek murrizteko Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko

7/2022 Legearen 18.7 artikulua arabera, baldin eta, lege horren araudia garatzean, Derichebourg España SA ez bada katalogatzen hondakin arriskutsuen sortzaile txiki modura.

p) Baldin eta Derichebourg España SA bada Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritako edo industriarako ontzi baten azken jabea, Garbiker MPAB SA bera da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, beraz, berau kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

q) Apartatu honetako e) eta f) letretan (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta l), m) eta n) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoz bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

r) Baldin eta hondakin arriskutsuak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan, hondakinen lekualdaketei buruzkoan, ezarritakoa bete beharko da.

s) Amiantoak duten hondakinak atzemanaz gero, Derichebourg España SAK bete egin beharko ditu Amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak. Horrez gain, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienezko baldintzak.

#### D.2.5.2.– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak honako hondakin arriskugabe hauek aitortu ditu:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Dagokion prozesua	Zenbatetsitako ekoizpena (t/urte)
Inprimatze-tonerraren hondakinak, 08 03 17 kodean zehaztutakoez bestelakoak	08 03 18	Zerbitzu orokorrak	41 unitate
Erabiltzen ez diren pneumatikoak	16 01 03		Puntuala
Zura	15 01 03		43 t
Papera eta kartoia	15 01 01		24 t
Udal-hondakinen nahasketak	20 03 01		0,4 t
Funtzio anitzeko ekipamenduak	16 02 14		puntuala
Hondakin ez-burdinazkoak (gomarekin nahasitako metalak)	19 10 02	Zatitzea	3.200 t
Zatitzearen zati arinak (fluff-light) eta hautsa, 19 10 03 kodean zehaztutakoez bestelakoak (zaticatzailetik sortutako hondakin arinak).	19 10 04		9.900 t
Hormigoi, adreilu, teila eta material zeramikoen nahasteak, 17 01 06 kodean zehaztutakoez bestelakoak	17 01 07		25 t
Lurra eta harriak, 17 05 03* kodean zehaztutakoez bestelakoak	17 05 04		25 t

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Dagokion prozesua	Zenbatetsitako ekoizpena (t/urte)
Plastikoa, goma, kablea	19 12 04	Kable birrindua	496 t
Kobrezko filamentuak berreskuratzen dituen papera	20 01 01		14,5 t
Ekipamendu baztertuetatik kendutako osagaiak, 16 02 15 kodean zehaztutakoez bestelakoak	16 02 16	GEEH arriskugabeen tratamendua Zatitzea	110 t
Pila alkalinoak (16 06 03 kodea dutenak izan ezik).	16 06 04		0,4 t
Bestelako pila eta metagailuak	16 06 05		0,4 t
Papera eta kartoia	19 12 01		1,5 t
Burdin metalak	19 12 02		800 t

a) Bat etorri bigarren apartatuaren D.2.5 azpiapartatua xedatutakoarekin, hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da; horretarako, balioztatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatu: haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Justifikazio tekniko hori lortzeko, hondakin hori onartzeko baimenduta dauden hiru kudeatzailek ezetza eman behar diote kasuan-kasuko hondakina balorizatzeari.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika eta behar bezala bereizi, eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, leheneratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegitatuta eduki. Hondakinen azken helburua balioztatzea denean, aldiz, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, ebakatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Derichebourg España SAK onarpen-agiriak edo agiri ofizial baliokideak erregistratu eta fitxategian gorde beharko ditu, nahitaezkoak badira, hiru urtez gutxienez.

e) Hondakina zabortegian biltegitatuz gero, jarraipen eta kontrolerako agiria bete beharko da hondakin arriskugabea lekualdatu aurretik, Hondakinak zabortegian biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

f) Balorizatze edo ezabatzeko helburuarekin, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua araberak.

g) Baldin eta Derichebourg España SA bada Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken jabea, Derichebourg España SA bera da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, beraz, kudeatzaile baimendu bati entregatu beharko dio.

h) Bat etorri Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan xedatutakoarekin, Derichebourg España SAK urtero adierazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari sortu dituen hondakin arriskugabe guztien jatorriaren eta kantitatearen, haien helmugaren eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen laburpen-memoria, deklarazioaren xede den ekitaldiaren amaieran. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidaliko du.

i) Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluari jarraikiz, fitxategi kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Fitxategi hori gutxienez 3 urtez gorde beharko du, eta urtero bidali beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

j) Apartatu honetako d) eta e) letretan (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta f), h) eta i) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoz bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskaintako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

k) Baldin eta hondakin arriskugabeak Estatutik kanpora esportatzen badira, hondakinen lekualdaketei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

#### D.2.6.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Bat etorri urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena) ezarritako aginduak betetzeko aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko txostenarekin, eta hor jasotako gomendioei jarraikiz, lurzoru babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu Derichebourg España SAK.

Bat etorri ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatuarekin, lurzoruaren egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtean behin, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, aurreko lerrokadan aipatutako araudian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan ezarrita dauden lurzoru babesteko betebeharrak betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruaren kalitatea leheneratzen diharduen erakunde egiaztatu batek egina, eta aipatutako txostenak bilduko ditu hor (lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen agiri bakar berri bat helaraziko da.

Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Bat etorri ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluan 1.c) apartatuan jasotzen denarekin, induskatu beharreko materialak (lurrak, eraiste-hondakinak, etab.) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearren.

b) Baldin eta jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa burutu bitartean gainditze hori antzematen bada, nahitaezkoa izango da indusketa selektiborako plan bat aurkeztea, lurzorua kalitatea ikertzeko eta leheneratzeko egiaztatuta dagoen erakunde batek egina. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu beharko du hura gauzatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketaren pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen eta jarduketa burutuko duen kontratadunaren identifikazioa.

– Jarduketaren xede den lekua non dagoen, baita Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzattia eta jarduketa-gunea zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jarduketaren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, baita zolatak ere.

– Ingurumen-jarraipenerako lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulua honetan aipatutako kasuetan, erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du, eta, bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira. Horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m<sup>3</sup>-tik gorakoa bada, erakunde egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gida-n jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzorueta-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak zabortegean biltegitratuz hustu nahi izanez gero, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa egiteko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan («Induskatu behar diren lurzoruetan in situ egindako laginketa») biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarriko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazioan bertan berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ezarritako EBA-B (industria-erabilera) balioaren azpikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde akreditatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ezartzen baita lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema, eta zehazten baita erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa.

h) Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako EBA-A ebaluazioko balio-adierazleak baino balio txikiagoak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurrak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lursailetik kanpo aldatetaren bat egitea aurreikusten bada (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 1. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoruaren arloko adierazpen bat lortu beharko du egin nahi diren aldatetak egiten hasi aurretik.

Horrez gainera, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurra- ren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek hartu beharreko neurriak ezar ditzan, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatua betez betiere.

#### D.2.7.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Indize akustiko hauek gaindi ez daitezten, beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den  $L_{Aeq,60}$  <sup>segundo</sup> zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leihoak eta atearak itxita, ezta  $L_{Amax}$  indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu beharko zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den  $L_{Aeq,60}$  <sup>segundo</sup> zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leihoak eta atearak itxita, ezta  $L_{Amax}$  indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko altueran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; horietan, apantailamenduak saihesteko behar den altuera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
$L_d$	75
$L_e$	75
$L_n$	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan ( $L_{Aeq,d}$ ,  $L_{Aeq,e}$  eta  $L_{Aeq,n}$ ) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaitutuko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da ( $L_{Aeq}, T_i$ ). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gaindituko.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneeetako zarata-maila.

E) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

E.1.– Atmosferarako emisioak kontrolatzea.

a) Derichebourg España SAK emisioak kontrolatu beharko ditu, honako informazio honen arabera:

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Fokuaren izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Metodoak
1	09 10 09 06 B	Zatikatzaila	Partikula solidoak	Sei hilean behin	UNE-EN 13284-1
2	09 10 09 06 B	Kable-birringailua-1. irteera (ezker)	Partikula solidoak	Sei hilean behin	UNE-EN 13284-1
3	09 10 09 06 B	Kable-birringailua-2. irteera (eskuin)	Partikula solidoak	Sei hilean behin	UNE-EN 13284-1

b) Puntu honetako a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako gai hauei dagokienez: helburua eta neurketa-plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek funtzionatzen badu urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin, eta emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozein maiztasunarekin, baldin eta emisioaren iraupen globala plantaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gora bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, baldin eta kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori urteko ingurumena zaintzeko programan, urte egokikoan, justifikatu beharko da.

E.1.2.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraituz, betiere: urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua (Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen) eta abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina (Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

E.2.– Saneamendu-sarera isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, azterketa hauek egingo dira:

Isurketa-gunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxatilaren UTM koordenatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
IG1	Ur sanitarioak + IG1 guneko euri-urak	X: 555892 Y: 4746774	IH, DQO, COT, TSS, As, Cd, Cr, Cu, Pb, Ni, Hg, Zn	Hilean behin	ILE
			PFOA, PFOS	Sei hilean behin	
IG2	IG2 guneko euri-urak + hozte-putzua	X: 555975 Y: 4746774	IH, DQO, COT, TSS, As, Cd, Cr, Cu, Pb, Ni, Hg, Zn	Hilean behin	ILE
			PFOA, PFOS	Sei hilean behin	

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo, bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Laginketak beti egingo dira kutsatzaile gehien sortzen den aldietan.

d) Isurketak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako a) apartatuan ezarritako kontrol-parametro guztiak betetzen badituzte ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.4.2 azpiapartatuan ezarritako mugak.

### E.3.– Zarata kontrolatzea.

a) Bi urtero, Indize akustiko hauen ebaluazioak egin beharko dira:  $L_d$ ,  $L_e$ ,  $L_n$ ,  $L_{Aeq,T_i}$  eta  $L_{Aeq,60}$

segundo\*

b) Neurketa bidezko ebaluazio guztiak II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, bat etorri urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztaturia eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak zainduko du ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

### E.4.– Lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola.

a) Hargatik eragotzi gabe ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.6 azpiapartatuan eskatutako dokumentazioa, datu hauek aurkeztuko dira lurzoruarekiko afekzio berri baten aukera hauteman den kasuan:

– Aintzat hartutako aldian izan diren gorabeherak, substantzia arriskutsuak direla eta lurzorua eta lurpeko uren kutsadura sortu ahal izan dutenak.

– Instalazioan hartutako neurrien egoera ez ezik –zolatak iragazgaiztea, drainatzeak, kubetak eta kutxatila–, larrialdi-egoeran jarduteko bitarteko egokiak eta nahikoak erabilgarri daudela ere egiaztatzen duen adierazpena, teknikari eskudunak sinatua. Ekipamendu eta gainazalak egoera onean daudela egiaztatzen duen edo, hala badagokio, horietan hautemandako gabeziak azaltzen dituen berriazko adierazpena izan beharko du.

– Lurzorua edo lurpeko urak kutsatuta egon daitezkeela dioen adierazpena, halakorik balego, edo, bestela, horrelako aztarnarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.



b) Halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduari dagokionez jakinarazitako baldintzak aztertzean zehazten diren kontrolei kalterik egin gabe –agindu horrek Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko jarraibide teknikoa onartzen du–, eta lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotuta, Derichebourg España SAK lurzoruaren eta lurpeko uren kalitatearen kontrola egin beharko du. Horretarako, gutxienez bi zundaketa egin beharko ditu urak ezaugarritzeko, ateratako lurzoru-zutabea ezaugarritzeko eta piezometro bana gaitzeko, eta horiek erabiliko dira lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko. Zundaketak kokatzean, kontuan hartuko dira egon daitezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren jarioa; hala, instalaziotik gorako eta beheko uren jarioa alderatu ahal izango da.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko aurkeztu beharreko informazioa lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako erakunde batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

#### E.5.– Jardueraren adierazleen kontrola.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro-adierazle hauen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumen-zaintzako programa-ekin batera aurkeztuko du.

Ingurumen-gaia	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Material-sarrera (txatar ferrikoa, ez-ferrikoa, bateriak, GEEHak)	t
Materia osagarrien kontsumoa	Oxigenoaren kontsumoa	m <sup>3</sup>
	Propanoaren kontsumoa	Kg
	Ar/CO <sub>2</sub> -aren kontsumoa	Kg
	Olioaren kontsumoa	L
Ur-kontsumoa	Sareko uraren kontsumoa	m <sup>3</sup>
	Iturriko uraren kontsumoa	m <sup>3</sup>
Energiaren kontsumoa	Elektrizitatearen kontsumoa	kWh
	A gasolioaren kontsumoa	L
	B gasolioaren kontsumoa	L
Emisio atmosferikoak	Partikulen emisioak (F1, F2, F3).	mg/Nm <sup>3</sup>
Sortutako hondakinak	Zatikatzailetik sortutako hondakin arinak EHZ 191004	t
	Plastikoa, kable-goma (kable birrindua) EHZ 191004	t
	Gomarekin nahasitako metalak sortzea EHZ 191002	t
	Koipe-bereizgailuko lohiak sortzea	t
	Olio erabilia sortzea	t
	GEEHak tratatzeko prozesuan honako hauek sortzea: kristal likidozko pantailak, kondentsadore elektrolitikoak, zirkuitu inprimatuak dituzten txartelak (EHZ 160215)	Kg
	GEEHak tratatzeko prozesuan nikel-kadmiozko metagailuak sortzea (EHZ 160602)	Kg
	GEEHak tratatzeko prozesuan fluoreszenteak sortzea (EHZ 200121)	Kg
GEEHak tratatzeko prozesuan pilak, metagailuak eta dendatako eta etxe partikularretako bateriak sortzea (EHZ 200133)	Kg	

#### E.6.– Emaizak kontrolatzea eta igortzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu beharko dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-a2inguru/eu/>

Hala, aipatutako programan zehaztutako aldiaren egindako kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko dira bakarrik, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko zaio berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honi, gertatutakoaren berri izan ondoren, betiere; horretarako helbide elektronikoa: [ippc@euskadi.eus](mailto:ippc@euskadi.eus).

Era berean, kontrolak urtean behin baino aldizkakotasun handiagoarekin egiten badira, kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaizta horiek urtero bidaliko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira neurri babesleak eta zuzentzaileen funtzionamendua, prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistematikak eta emaitzen analisia, eta bereziki aipatuko dira epe horretan izandako gertakari nagusiak, haien kausa eta konponbideak, eta, halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik zehaztu ez bada.

#### E.7.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina prestatu beharko du. Bertan, aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bildu beharko ditu. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, Ingurumena Zaintzeko Programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika, adierazle horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzea ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

F) Ezohiko egoeretan, kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

F.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren isurketen eta hondakinen zenbatespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzeko ere bai.

Instalazioa gelditzean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak bigarren apartatuko D.2.5 azpiapartatuan («Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak») ezarritakoari jarraituz kudeatu beharko dira,

baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

#### F.2.– Jarduera etetea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketan jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako estandarrak eta irizpideak ezartzen dituen. Horrenbestez, Derichebourg España SAK jarduera etete horren berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, bat etorri ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoari.

#### F.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako etetea eskatuz gero, Industriako Emisioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Derichebourg España SAK, aldi baterako etete-eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen isuri edo emisio oro saihesteko.

#### F.4.– Jarduera anomaloa izanez gero aplikatu beharreko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean zehaztuta dauden ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriez eta jardunerako baldintzez gain, ondorengo apartatu hauetan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

##### a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuzko jarioak edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesik izanez gero, lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien gutzia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako biltodien sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presio arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoera prebenitzeko.

Era berean, atmosferara eta uretara egindako isurpenak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduaren egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan sortutako soberako hondakin solidoak eta lohiak behar den maiztasunez aterako dira, instalazioak behar bezala funtziona dezan. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura botako aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo zabortegi baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten andel iragazgaitzetan biltegiratuko dira. Ez dira inoiz pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneeetan.

Instalazioek lohien tratamendua badute, lohi horietatik hustutako ura berriro bideratu beharko da arazketa-instalazioaren sarrerara, tratatu dadin.

Pabiloien barruan zolatak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira, edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Ez dago baimenduta hondakin-ura «bypass» bidez isurtzea arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan isuriak «bypass» bidez egin behar badira nahitaez, titularrak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isuriak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. «Bypass» horrek aurreikusi gabeko isurketaren bat badago, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, eta dagokion txostena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali (apartatu honetako i) letran adierazita-koari jarraituz).

b) Halaber, erregistro bat eduki beharko da, aldizka egindako mantentze-lanak eta hautemandako gorabeherak jasota uzteko.

Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

d) Erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta orokorrean, fabrikatan sortutako hondakinak maneiatzean, baliteke lurzorua eta ura kutsatzea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten lurzatiaren azalera guztiak irazgaiztuko dira.

e) Hautsezko produktuak biltegiratzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak biltegiratuko dira, halako baldintzetan ezen ezin izango baitira ingurunean sakabanatu.

g) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontzia, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Tangen hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura edukiko dute. Bertan, lantegiaren eraginkortasunari eragin diezaioketen jarioak lantegira joatea saihestu beharko da.

i) Gorabeherarik gertatuz gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen gainean edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo anomaliaren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, betiere zuzen-

tzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren. Jakinarazpenean, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera-mota.
- Jatorriak eta arrazoiak (unean-unean zehatz daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Sortutako ondorioak.
- Hala badagokio, epe laburrera aurreikusitako jardunak.

Gorabehera edo arazo larriren bat edo ezusteko isuri edo emisioaren bat egonez gero, SOS Deiak eta Asparreneko Udala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehaztasunez jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera-mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Ustekabeko isurketa gertatuz gero, emaria eta isuritako materialak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne hartuta.
- Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Arazoa berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketen bat gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egiteko arriskua badu, titularrak berehala etengo du isurketa hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilean eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoei, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

j) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari instalazioko edozein etenaldi programatu, etengabeko prozesu bati badagokio, baita aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak ere, ahalik eta aurrerapen handienarekin, betiere.

k) Larrialdi-egoeretan, babes zibilari buruzko legerian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

G) Baldin eta araudi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitea gomen-datzen badute, aldatu ahal izango dira babes- edo zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa, baita neurtu behar diren parametroak, neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako

parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugak ere. Era berean, babes- zein zuzen-keta-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa alda daitezke, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

H) Urtean behin, martxoaren 31 baino lehen, aurreko urtean atmosferarako eta uretarako isur-ketei eta sortutako hondakin-mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Derichebourg España SAK Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuari jarraikiz.

Informazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz bidaliko da.

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenean Eragina duten Jardueren Erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, informazioa Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko (E-PRTR-Europa erregistroa).

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, bat etorri zuzenaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da bete egiten dela Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa.

I) Instalazioetan aldaketarik egin ahal izateko, alde zuzenetik honako helbide elektronikoa honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/serv\\_proc\\_autorizacion/p\\_autho\\_20183895085814/procedures/proc\\_20183895329689/eu\\_def/adjuntos/Formulario\\_modificaciones.doc](https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_autorizacion/p_autho_20183895085814/procedures/proc_20183895329689/eu_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.doc)

Organo horren onespena ere beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Industriako emisioen Erregelamendua onartu eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko zuzenaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen du zer irizpide hartu behar diren kontuan aldaketa funtsezkotzat jotzeko.

Nolanahi ere, bat etorri urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan xedatutakoarekin, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, bat etorri abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutako irizpideekin.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa egin aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.

J) Ingurumen-arloko erantzukizuna.

Derichebourg España SA 3. lehen tasun-mailako operadore gisa dago sailkatuta ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren arabera, zeinaren bidez lehen tasun-ordena eta egutegia ezartzen baita nahitaezko finantza-bermea eratzea eskatzeko ministerio-aginduak onartzeko, hain zuzen ere, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen azken xedapenetako laugarrenean aurreikusten direnak; agindu hori urriaren 23ko APM/1040/2017 Aginduak aldatzen du.

Derichebourg España SAK bere jarduera profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa egin beharko du, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea hein batean garatzeko araudia onartzen duen abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horren hirugarren puntuaren arabera, operadoreak ingurumen-arriskuen azterketa eguneratuko du egokitzat jotzen duen guztietan, eta jardueran, instalazioan edo baimean funtsezko aldaketak egiten direnean.

Finantza-bermea eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritzari eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan aurreikusitako salbuespenei jarraikiz, jarduera finantza-bermea eratzetik salbuesita geratzen bada, agintaritzari eskudunari erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio, zinetan IV.2 eranskinean jasotako informazioa jasoko baita gutxienez.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta horien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen-erantzukizunari buruzko Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala».

«Laugarrena.– Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspena ofizioz egingo da kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, finkatutako emisioaren muga-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea komeni bada.

b) Emisioak nabarmen murriz daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan eginiko aldaketa handien ondoriozko gehiegizko kosturik izan gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta, beste teknika batzuk erabiltzea beharrezkoa denean.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legedian araututakoaren arabera, uste duenean ingurumen-baimen integratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isuriei dagokienez. Kasu horretan, arroko erakundeak, txosten lotesle baten bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen integratua eman dezan, gehienez ere hogeit hamar eguneko epean hasteko berrikuste-prozesua.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legeriak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo beste ohar batzuen arabera, egiaztatzen bada ez direla nahikoak ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan ezarritakoaren arabera egindako azterketa eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen integratua berrikusteak ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsadura-aren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan».

Laugarrena.– Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsadura-aren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 5.d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hondakinak balorizatzeko instalazioari dagokionez, zeina ebazpen honen xede baita, gerta litekeen titulartasun-aldaketa oro jakinarazi beharko dio Derichebourg España SAK Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, azken horrek onar dezan.

Bosgarrena.– Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsadura-aren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz, eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zehapenak ezartzea ekar dezake.

Seigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Derichebourg España SAri, Asparrenako Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Zazpigarrena.– Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Zortzigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar dakioko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumene-ko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 17a.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,  
AMAIA BARREDO MARTÍN.